e) Indemnizar los daños que se ocasionen a terceros por causa de la ejecución de las obras o de su explotación, cuando le sean imputables de acuerdo con el artículo 214.

f) Proteger el dominio público que quede vinculado a la concesión, en

f) Kontzesioa 226. artikuluan ezarritakoarekin bat lagatzeko eskubidea, eta legeak ezarritako baldintzen arabera hipotekatzekoa, kontratazio-organoak aurretiaz baimena emanda, kasu batean zein bestean.

g) Kreditu-eskubideak balio negoziagarri bihurtzeko eskubidea, legeak agintzen duen moduan.

h) Lege honetan zein beste batzuetan edo baldintza-pleguetan aitortutako beste edozein eskubide.

246. artikulua. Kontzesiodunaren betebeharrak.

Kontzesiodunaren betebeharrak orokorrak dira:

a) Obrak egitea, kontratuan xedatutakoaren arabera.

b) Herri-lana ustiatzea, kudeaketak dakartzan ekonomia-arriskuak bere gain hartuta, betiere, kontratuan ezarritako edo gerora kontratazio-organoak agindutako jarraitasuna eta baldintzak errespetatuz.

c) Herri-lana erabiltzaile guztiek erabil dezaketela onartzea, betiere, berdintasun, unibertsaltasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera ezarrita dauden baldintzak errespetatuta, eta, hala dagokionean, dagokion tarifa ordainduta.

d) Herri-lanaren ordena zuzena eta kalitatea, baita erabilera bera ere, egokiro zaintzea, horretarako komeni diren jarraibideak aginduta, kontratazio-organoari dagozkion zaintza-aginpideei kalte egin gabe.

e) Obrak gauzatzean edo ustiatzean hirugarren batzuei egindako kalteak ordaintzea, baldin eta kalte horiek 214. artikulua arabera kontzesiodunari egozteko modukoak badira.

f) Kontzesioari lotuta geratzen den jabari publiko guztia babestea, batez ere, balio

especial, preservando los valores ecológicos y ambientales del mismo.

g) Cualesquiera otras previstas en ésta u otra Ley o en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Artículo 247. *Uso y conservación de la obra pública.*

1. El concesionario deberá cuidar de la adecuada aplicación de las normas sobre uso, policía y conservación de la obra pública.

2. El personal encargado de la explotación de la obra pública, en ausencia de agentes de la autoridad, podrá adoptar las medidas necesarias en orden a la utilización de la obra pública, formulando, en su caso, las denuncias pertinentes.

A estos efectos, servirán de medio de prueba las obtenidas por el personal del concesionario debidamente acreditado y con los medios previamente homologados por la Administración competente, así como cualquier otro admitido en derecho.

3. El concesionario podrá impedir el uso de la obra pública a aquellos usuarios que no abonen la tarifa correspondiente, sin perjuicio de lo que, a este respecto, se establezca en la legislación sectorial correspondiente.

4. El concesionario deberá mantener la obra pública de conformidad con lo que, en cada momento y según el progreso de la ciencia, disponga la normativa técnica, medioambiental, de accesibilidad y eliminación de barreras y de seguridad de los usuarios que resulte de aplicación.

5. La Administración podrá incluir en los pliegos de condiciones mecanismos para medir la calidad del

ekologikoak eta ingurumenari dagozkionak zainduz.

g) Lege honetan zein beste batean edo administrazio-klausula zehatzen pleguan jasotako beste edozein betebeharrak.

247. artikulua. Herri-lana erabiltzea eta kontserbatzea.

1. Kontzesiodunak begiratu behar du herri-lanaren erabilera, zaintza eta kontserbazioa direla-eta emandako arauak era egokian aplikatzen direla.

2. Herri-lana ustiatzeaz arduratzen diren langileek, bertan agintaritzaren agenterik egon ezean, ezarri beharreko neurriak ezarriko dituzte, egoki irizten badiote, herri-lana egokiro erabil dadin, eta, hala dagokionean, salaketak ere jarriko dituzte.

Horretarako, kontzesiodunaren langileek lortutako frogabideak erabili ahal izango dira froga modura, baita zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere; betiere, langile horiek behar bezalako sinestamendua eduki behar dute, eta administrazio eskudunak aurretiaz homologatutako baliabideak erabiliz lortu behar dira frogabide horiek.

3. Kontzesiodunak herri-lana erabiltzea galaraziko die ordaindu beharreko tarifa ordaindu ez duten erabiltzaileei, hargatik eragotzi gabe dagokion arloko legerian gai honetaz ezarritakoa.

4. Kontzesiodunak egokiro mantendu beharko du herri-lana, teknikaren, ingurumenaren, irisgarritasunaren, oztopoak kentzearen eta erabiltzaileen segurtasunaren arloetako arau aplikagarriek unean-unean eta zientziaren aurrerabidearen arabera ezarritakoari jarraituz.

5. Kontzesiodunak eskainitako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko mekanismoak ezarri ahal izango ditu

servicio ofrecida por el concesionario, y otorgar ventajas o penalizaciones económicas a éste en función de los mismos.

Artículo 248. Zonas complementarias de explotación comercial.

1. Atendiendo a su finalidad, las obras públicas podrán incluir, además de las superficies que sean precisas según su naturaleza, otras zonas o terrenos para la ejecución de actividades complementarias, comerciales o industriales que sean necesarias o convenientes por la utilidad que prestan a los usuarios de las obras y que sean susceptibles de un aprovechamiento económico diferenciado, tales como establecimientos de hostelería, estaciones de servicio, zonas de ocio, estacionamientos, locales comerciales y otros susceptibles de explotación.

2. Estas actividades complementarias se implantarán de conformidad con lo establecido en los pliegos generales o particulares que rijan la concesión y, en su caso, con lo determinado en la legislación o el planeamiento urbanístico que resulte de aplicación.

3. Las correspondientes zonas o espacios quedarán sujetos al principio de unidad de gestión y control de la Administración Pública concedente y serán explotados conjuntamente con la obra por el concesionario, directamente o a través de terceros, en los términos establecidos en el oportuno pliego de la concesión.

Subsección 2ª Prerrogativas y derechos de la Administración

Artículo 249. Prerrogativas y derechos de la Administración.

1. Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y con los efectos

administratioak baldintza-pleguetan, eta, horien arabera, abantailak eman ahal izango ditu, edo zigor ekonomikoak ezarri.

248. artikulua. Merkataritza-ustiapenerako gune osagarriak.

1. Herri-lanen barruan, haien ezaugarrien arabera beharrezko den lurzoruz gainera, beste orube edo lursail batzuk ere sartu ahal izango dira, erabiltzaileentzako zerbitzua nolakoa izango den aintzat hartuta, beharrezkoak edo komenigarriak diren beste era bateko jardunak gauzatu ahal izateko (osagarriak, merkataritzakoak edo industrialak), betiere, aprobetxamendu ekonomiko bereizia izateko modukoak badira, hala nola, ostatu emateko lekuak, gasolindegia, aisialdi-guneak, aparkalekuak, merkataritza-lokalak eta ustiatzeko modukoak izan daitezkeen beste batzuk.

2. Jardun osagarri horiek ezarri behar direnean, beti jokatu beharko da kontzesioa arautzeko plegu orokor edo berezietan ezarritakoaren arabera, edo, hala badagokio, aplikatzekoa den hirigintza-legerian edo -planeamenduan ezarritakoaren arabera.

3. Dagozkion gune edo esparru horiek herri-administratio kontzesiogileak ez bestek kudeatzeko eta kontrolatzeko printzipioaren pean geratuko dira, eta kontzesiodunak ustiatuko ditu obrarekin batera, zuzenean edo hirugarren batzuen bitartez, kontzesioaren pleguan ezarritako moduan.

2. azpiatala. Administratioaren prerrogatibak eta eskubideak.

249. artikulua. Administratioaren prerrogatibak eta eskubideak.

1. Lege honetan ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak aintzat hartuz,

señalados en esta Ley, el órgano de contratación o, en su caso, el órgano que se determine en la legislación específica, ostentará las siguientes prerrogativas y derechos en relación con los contratos de concesión de obras públicas:

- a) Interpretar los contratos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento.
- b) Modificar los contratos por razones de interés público debidamente justificadas, de acuerdo con lo previsto en el título V del libro I.
- c) Restablecer el equilibrio económico de la concesión a favor del interés público, en la forma y con la extensión prevista en el artículo 258.
- d) Acordar la resolución de los contratos en los casos y en las condiciones que se establecen en los artículos 269 y 270.
- e) Establecer, en su caso, las tarifas máximas por la utilización de la obra pública.
- f) Vigilar y controlar el cumplimiento de las obligaciones del concesionario, a cuyo efecto podrá inspeccionar el servicio, sus obras, instalaciones y locales, así como la documentación, relacionados con el objeto de la concesión.
- g) Asumir la explotación de la obra pública en los supuestos en que se produzca el secuestro de la concesión.
- h) Imponer al concesionario las penalidades pertinentes por razón de los incumplimientos en que incurra.
- i) Ejercer las funciones de policía en el uso y explotación de la obra pública en los términos que se establezcan en la legislación sectorial específica.
- j) Imponer con carácter temporal las condiciones de utilización de la obra pública que sean necesarias para solucionar situaciones excepcionales

kontratazio-organoak, edo, hala dagokionean, berariazko legeriak ezarritako organoak, honako prerrogatiba eta eskubide hauek izango ditu herri-lanen kontzesioko kontratuei buruz:

- a) Kontratuak interpretatzea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztea.
- b) Kontratuak aldatzea, behar bezala arrazoiutako interes publikoko arrazoiengatik, I. liburuko V. tituluan aurreikusitakoaren arabera.
- c) Kontzesioaren oreka ekonomikoa interes publikoaren alde berrezartzea, 258. artikuluan aurreikusitako moduan eta hedadurarekin.
- d) Kontratuak suntsiarazteko erabakia hartzea, 269. eta 270. artikuluetan ezarritako kasu eta baldintzen arabera.
- e) Herri-lana erabiltzeagatik gehienezko tarifak ezartzea, hala badagokio.
- f) Kontzesiodunak bere betebeharrak betetzen dituela begiratu eta kontrolatzea; horretarako, kontzesioaren objektuarekin zerikusia duten zerbitzuak, obrak, instalazioak eta lokalak ikuskatu ahal izango ditu, baita dokumentazioa ere.
- g) Kontzesioa bahitzen denean herri-lana ustiatzeko zeregina bereganatzea.
- h) Kontzesiodunari betebeharrak bete gabe uzteagatik ezarri beharreko zigorrak ezartzea.
- i) Herri-lana erabiltzerakoan eta ustiatzerakoan, zaintza-aginpideak betetzea, arloz arloko legeria espezifikotan ezarritako moduan.
- j) Interes orokorreko arazo salbuespenezkoak konpondu behar direnean, aldi baterako baldintzak ezartzea herri-lana dagokion kalte-

de interés general, abonando la indemnización que en su caso proceda.

k) Cualesquiera otros derechos reconocidos en ésta o en otras leyes.

2. El ejercicio de las prerrogativas administrativas previstas en este artículo se ajustará a lo dispuesto en esta Ley y en la legislación específica que resulte de aplicación.

En particular, será preceptivo el dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos de interpretación, modificación, nulidad y resolución, cuando se formule oposición por parte del concesionario, en las modificaciones acordadas en la fase de ejecución de las obras que se encuentren en el caso previsto en el artículo 211. 3. b) y en aquellos supuestos previstos en la legislación específica.

Artículo 250. Modificación de la obra pública.

1. El órgano de contratación podrá acordar, cuando el interés público lo exija y si concurren las circunstancias previstas en el Título V del Libro I, la modificación de la obra pública, así como su ampliación o, si concurren las circunstancias previstas en el artículo 171. b), la realización de obras complementarias directamente relacionadas con el objeto de la concesión durante la vigencia de ésta, procediéndose, en su caso, a la revisión del plan económico-financiero al objeto de acomodarlo a las nuevas circunstancias.

2. Toda modificación que afecte el equilibrio económico de la concesión se registrará por lo dispuesto en el artículo 258.

3. Las modificaciones que, por sus

ordaina ordainduta erabiltzeko.

k) Lege honetan zein beste batzuetan aitortutako beste edozein eskubide.

2. Artikulu honetan jasotako administrazio-prerrogatibak, lege honetan eta aplikatu beharreko legeria espezifikotan ezarritakoari jarraituz erabiliko dira.

Bereziki, kontratua interpretatu eta aldatzeko, edo deuseza dela adierazteko edo suntsiarazteko, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoaren irizpena aginduzkoa izango da honako kasu hauetan: kontzesioduna aurka jartzen denean, obrak gauzatzeko fasean 211. 3. b) artikuluan aurreikusitako kasuko aldaketak egitea erabakitzen denean, eta orobat, berariazko legerian aurreikusitako kasuetan.

250. artikulua. Herri-lana aldatzea.

1. Kontratazio-organoak, interes publikoak hala agintzen duenean eta I. liburuko V. tituluaren aurreikusitako egoeretan, herri-lana aldatzeko erabakia hartu ahal izango du, baita zabaltzeko erabakia ere, 171. b) artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen badira. Orobat erabaki dezake kontzesioaren objektuari zuzenean lotutako lan osagarriak egitea kontzesioa indarrean den bitartean. Kasu horietan, hala badagokio, ekonomia- eta finantza-plana berrikusi egin beharko da, egoera berrira egokitzeko.

2. Kontzesioaren oreka ekonomikoari eragiten dioten aldaketak 258. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin beharko dira.

3. Aldaketa horiek, ezaugarri

características físicas y económicas, permitan su explotación independiente serán objeto de nueva licitación para su construcción y explotación.

Artículo 251. Secuestro de la concesión.

1. El órgano de contratación, previa audiencia del concesionario, podrá acordar el secuestro de la concesión en los casos en que el concesionario no pueda hacer frente, temporalmente y con grave daño social, a la explotación de la obra pública por causas ajenas al mismo o incurriese en un incumplimiento grave de sus obligaciones que pusiera en peligro dicha explotación.

El acuerdo del órgano de contratación será notificado al concesionario y si éste, dentro del plazo que se le hubiera fijado, no corrigiera la deficiencia se ejecutará el secuestro.

Asimismo, se podrá acordar el secuestro en los demás casos recogidos en esta Ley con los efectos previstos en la misma.

2. Efectuado el secuestro, corresponderá al órgano de contratación la explotación directa de la obra pública y la percepción de la contraprestación establecida, pudiendo utilizar el mismo personal y material del concesionario.

El órgano de contratación designará uno o varios interventores que sustituirán plena o parcialmente al personal directivo de la empresa concesionaria.

La explotación de la obra pública objeto de secuestro se efectuará por cuenta y riesgo del concesionario, a quien se devolverá, al finalizar aquél, con el saldo que resulte después de satisfacer todos los gastos, incluidos

fisikoengatik edo ekonomikoengatik, ustiapen independentea bideratzeko aukera ematen badute, beste lizitazio bat egin beharko da aldaketa horiek eraiki eta ustiatzeko.

251. artikulua. Kontzesioa bahitzea.

1. Baldin eta kontzesiodunak ezin badu, berari ez dagozkion kausengatik, aldi batez herri-lana ustiatu eta hori dela eta gizarteari kalte larria eragiten bazaio, edo betebeharrak larriki huts egin eta ustiapena arriskuan jartzen badu, kontratazio-organoak, kontzesiodunari entzunaldia eman ondoren, kontzesioa bahitzeko erabakia hartu ahal izango du.

Kontratazio-organoaren erabakia kontzesiodunari jakinaraziko zaio, eta, kontzesiodunak, horretarako emandako epearen barruan, okerra zuzentzen ez badu, kontzesioa bahitu egingo da.

Era berean, lege honek aurreikusitako gainerako kasuetan ere kontzesioa bahitzeko erabakia hartu ahal izango da, legean bertan adierazitako ondorioekin.

2. Kontzesioa bahitutakoan, kontratazio-organoak izango du herri-lana zuzenean ustiatzeko ardura, baita aurrez ezarritako kontraprestazioa jasotzekoa ere, eta, zeregin horretan, kontzesiodunaren langile eta bitarteko berberak erabili ahal izango ditu.

Kontratazio-organoak kontu-hartzaile bat edo batzuk izendatuko ditu enpresa kontzesioduneko zuzendaritza-taldekoen ordezkari jardun dezaten erabat zein partez.

Bahitutako herri-lana arriskua kontzesiodunaren gain dela ustiatuko da, eta, bahiketa amaitutakoan, kontzesiodunari itzuliko zaio herri-lanaren ustiapena, gastu guztiak ordaindu ostean (kontu-hartzaileen

los honorarios de los interventores, y deducir, en su caso la cuantía de las penalidades impuestas.

3. El secuestro tendrá carácter temporal y su duración será la que determine el órgano de contratación sin que pueda exceder, incluidas las posibles prórrogas, de tres años.

El órgano de contratación acordará de oficio o a petición del concesionario el cese del secuestro cuando resultara acreditada la desaparición de las causas que lo hubieran motivado y el concesionario justificase estar en condiciones de proseguir la normal explotación de la obra pública.

Transcurrido el plazo fijado para el secuestro sin que el concesionario haya garantizado la asunción completa de sus obligaciones, el órgano de contratación resolverá el contrato de concesión.

Artículo 252. Penalidades por incumplimientos del concesionario.

1. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares establecerán un catálogo de incumplimientos de las obligaciones del concesionario, distinguiendo entre los de carácter leve y grave.

Deberán considerarse penalizables el incumplimiento total o parcial por el concesionario de las prohibiciones establecidas en esta Ley, la omisión de actuaciones que fueran obligatorias conforme a ella y, en particular, el incumplimiento de los plazos para la ejecución de las obras, la negligencia en el cumplimiento de sus deberes de uso, policía y conservación de la obra pública, la interrupción injustificada total o parcial de su utilización, y el cobro al usuario de cantidades superiores a las legalmente

zerbitzu-sariak ere barnean direla) eta, hala badagokio, ezarri zaizkion zigorren zenbatekoa ordaindu ostean geratzen den saldoarekin.

3. Kontzesioaren bahiketa aldi baterako izango da; iraupen hori kontratazio-organoak erabakiko du, baina ezin izango da, luzapenak ere barnean direla, hiru urtetik gorakoa izan.

Kontratazio-organoak, ofizioz edo kontzesiodunak hala eskatuta, bahiketa amaitzeko erabakia hartuko du, horretarako kausak desagertu egin direla egiaztatzen denean eta kontzesiodunak herri-lana normaltasunez ustiitzen jarraitzeko moduan dagoela justifikatzen duenean.

Baldin eta kontzesiodunak, kontzesioaren bahiketa-epea igarota, ez badu bermatu erabat bereganatzen dituela dagozkion betebeharrak, kontratazio-organoak kontzesio-kontratua suntsiaraziko du.

252. artikulua. Kontzesiodunak kontratua ez betetzeagatik jarri beharreko zigorrak.

1. Administrazio-klausula zehatzen pleguetan kontzesiodunaren ez-betetzeen katalogo bat ezarriko da, eta ez-betetze arinak eta larriak bereiziko dira.

Zigortzeko modukotzat joko dira kontzesiodunak lege honetan ezarritako debekuak partez edo osorik urratzea, legearen arabera nahitaezkoak diren jarduerak huts egitea, eta, bereziki, obra gauzatzeko epeak ez betetzea, herri-lana erabiltzeko, zaintzeko eta kontserbatzeko arauak betetzerakoan zabarkeriaz jokatzeko, herri-lanaren erabilera partez zein osorik arrazoitu gabe etetea, eta, legez baimendutakoak baino diru-zenbateko handiagoak kobratzea erabiltzaileari.

autorizadas.

2. El órgano de contratación podrá imponer penalidades de carácter económico, que se establecerán en los pliegos de forma proporcional al tipo de incumplimiento y a la importancia económica de la explotación.

El límite máximo de las penalidades a imponer no podrá exceder del 10 por 100 del presupuesto total de la obra durante su fase de construcción.

Si la concesión estuviera en fase de explotación, el límite máximo de las penalidades anuales no podrá exceder del 20 por 100 de los ingresos obtenidos por la explotación de la obra pública durante el año anterior.

3. Los incumplimientos graves darán lugar, además, a la resolución de la concesión en los casos previstos en el correspondiente pliego.

4. Además de los supuestos previstos en esta Ley, en los pliegos se establecerán los incumplimientos graves que pueden dar lugar al secuestro temporal de la concesión, con independencia de las penalidades que en cada caso procedan por razón del incumplimiento.

5. Durante la fase de ejecución de la obra el régimen de penalidades a imponer al concesionario será el establecido en el artículo 212.

6. Con independencia del régimen de penalidades previsto en el pliego, la Administración podrá también imponer al concesionario multas coercitivas cuando persista en el incumplimiento de sus obligaciones, siempre que hubiera sido requerido previamente y no las hubiera cumplido en el plazo fijado.

A falta de determinación por la legislación específica, el importe diario de la multa será de 3. 000 euros.

2. Kontratazio-organoak zigor ekonomikoak ezarri ahal izango ditu, eta pleguetan zehaztuko dira, ez-betetzea nolakoa izan den eta ustiakuntzaren garrantzi ekonomikoa zein den, horien proportzioan.

Zigorren diru-zenbatekoa ezingo da izan obrak eraiketa-fasean izan duen aurrekontu osoaren 100eko 10 baino handiagoa.

Kontzesioa ustiapen-fasean badago, urtean ezarritako zigorren diru-zenbatekoa ezin da izan herri-lanaren ustiapenak aurreko urtean eman dituen diru-sarreraren 100eko 20 baino handiagoa.

3. Ez-betetzea larria denean, aurreko ondorioez gainera, kontzesioa suntsiarazi egingo da dagokion pleguan ezarritako kasuetan.

4. Lege honetan ezarritako egoerez gainera, kontzesioa aldi baterako bahitzea ekar dezaketen ez-betetze larriak zein diren zehaztuko da pleguetan, kontzesiodunak bete beharreko betebeharrak ez betetzeagatik kasuan-kasuan ezarri beharreko zigorrak gorabehera.

5. Obra gauzatzeko fasean kontzesiodunari ezarriko zaion zigor-araubidea 212. artikuluan ezarritakoa izango da.

6. Pleguan ezarritako araubidea gorabehera, administrazioak hertsatze-isunak ere ezarri ahal izango dizkio kontzesiodunari betebeharrak ez betetzen jarraitzen badu, betiere alde zuzenetik errekerimendua egin bazaio eta ezarritako epean bete ez baditu.

Legeria espezifikoak bestelakorik ezarri ezean, isunaren zenbatekoa 3. 000 eurokoa izango da egun bakoitzeko.

Sección 3ª Régimen económico-financiero de la concesión

Artículo 253. Financiación de las obras.

1. Las obras públicas objeto de concesión serán financiadas, total o parcialmente, por el concesionario que, en todo caso, asumirá el riesgo en función de la inversión realizada.
2. Cuando existan razones de rentabilidad económica o social, o concurren singulares exigencias derivadas del fin público o interés general de la obra objeto de concesión, la Administración podrá también aportar recursos públicos para su financiación, que adoptará la forma de financiación conjunta de la obra, mediante subvenciones o préstamos reintegrables, con o sin interés, de acuerdo con lo establecido en el artículo 240 y en esta sección, y de conformidad con las previsiones del correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares, debiendo respetarse en todo caso el principio de asunción de riesgo por el concesionario.
3. La construcción de la obra pública objeto de concesión podrá asimismo ser financiada con aportaciones de otras Administraciones Públicas distintas a la concedente, en los términos que se contengan en el correspondiente convenio, y con la financiación que pueda provenir de otros organismos nacionales o internacionales.

Artículo 254. Aportaciones públicas a la construcción.

1. Las Administraciones Públicas podrán contribuir a la financiación de la obra mediante aportaciones que serán realizadas durante la fase de ejecución de las obras, tal como dispone el artículo 240 de esta Ley,

3. atala. Kontzesioaren araubide ekonomiko-finantzarioa.

253. artikulua. Obrak finantzatzea.

1. Kontzesiodunak finantzatuko ditu, osorik zein partez, kontzesioan utzitako herri-lanak, eta, betiere, berak hartuko du bere gain arriskua, egindako inbertsioaren arabera.
2. Administrazioak ere, errentagarritasun ekonomikoa edo soziala dela-eta, edo kontzesioan utzitako obraren xede publikoak edo interes orokorrak berariaz halaxe eskatuta, baliabide publikoak eman ahal izango ditu obra finantzatzeko, eta administrazioak eta kontzesiodunak elkarrekin egindako finantzaketa izango da; itzultzeko diru-laguntzen edo maileguen (interesekiko edo interesik gabekoen) bidezko finantzaketa izango da, 240. artikuluan eta atal honetan ezarritakoaren arabera eta administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, kontzesiodunak arriskua bere gain hartzeko printzipioa errespetatu beharko da.
3. Kontzesioan emandako herri-lanaren eraikuntza finantzatzeko orduan, administrazio kontzesiogileaz besteko herri-administrazio batzuek ere egin ahal izango dituzte ekarpenak, dagokion hitzarmenean jasotako xedapenen arabera, eta estatuko edo nazioarteko beste organismo batzuek ere parte hartu ahal izango dute.

254. artikulua. Eraikuntza-lana finantzatzeko ekarpen publikoak.

1. Herri-administrazioek obra finantzatzen lagundu ahal izango dute, ekarpenak eginez obrak gauzatzeko fasean, lege honen 240. artikuluan xedatzen duen moduan, edo obrak bukatutakoan, edo kontzesioa

una vez concluidas éstas o al término de la concesión, y cuyo importe será fijado en los pliegos de condiciones correspondientes o por los licitadores en sus ofertas cuando así se establezca en dichos pliegos.

En los dos últimos supuestos, resultará de aplicación la normativa sobre contratos de obra bajo la modalidad de abono total, salvo en la posibilidad de fraccionar el abono.

2. Las aportaciones públicas a que se refiere el apartado anterior podrán consistir en aportaciones no dinerarias del órgano de contratación o de cualquier otra Administración con la que exista convenio al efecto, de acuerdo con la valoración de las mismas que se contenga en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Los bienes inmuebles que se entreguen al concesionario se integrarán en el patrimonio afecto a la concesión, destinándose al uso previsto en el proyecto de la obra, y revertirán a la Administración en el momento de su extinción, debiendo respetarse, en todo caso, lo dispuesto en los planes de ordenación urbanística o sectorial que les afecten.

Artículo 255. Retribución por la utilización de la obra.

1. El concesionario tendrá derecho a percibir de los usuarios o de la Administración una retribución por la utilización de la obra en la forma prevista en el pliego de cláusulas administrativas particulares y de conformidad con lo establecido en este artículo.

2. Las tarifas que abonen los usuarios por la utilización de las obras públicas serán fijadas por el órgano de contratación en el acuerdo de adjudicación.

amaitutakoan; ekarpen horien zenbatekoa baldintzen pleguan egongo da ezarrita, edo lizitatzailleek eurek finkatuko dute beren eskaintzetan, pleguan horrela jasota dagoenean.

Azken bi kasu horietan, ordainketa osoaren modalitatea erabilita egiten diren obra-kontratuei buruzko arauak aplikatu behar dira, ordainketa zatika egiteko aukeraren kasuan izan ezik.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako ekarpen publikoak kontratazio-organoak egindako ekarpen diruz bestekoak ere izan daitezke, edo beste edozein administraziok egindakoak, baldin eta horretarako hitzarmenik egin bada, eta, betiere, administrazio-klausula zehatzen pleguak ekarpen horiei buruz ezarritako balorazioaren arabera.

Kontzesiodunari entregatutako ondasun higiezinak ere kontzesioari atxikitako ondarearen barruan sartuko dira; obra-proiektuan aurreikusitako erabilera emango zaie, eta, kontzesioa amaitzean, berriz ere administrazioaren eskuetara itzuliko dira; betiere, hiri-antolamendurako planek edo plan sektorialek xedatutakoa errespetatu beharko da.

255. artikulua. Obra erabiltzearen ordainsaria.

1. Kontzesiodunak eskubidea izango du erabiltzaileek edo administrazioak ordainsaria eman diezaioten obra erabiltzeagatik; administrazio-klausula zehatzen pleguan jasotako moduan eman beharko zaio ordainsaria, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

2. Erabiltzaileek herri-lanak erabiltzeagatik ordaindu behar dituzten tarifak kontratazio-organoak finkatuko ditu esleipen-akordioan.

Las tarifas tendrán el carácter de máximas y los concesionarios podrán aplicar tarifas inferiores cuando así lo estimen conveniente.

3. Las tarifas serán objeto de revisión de acuerdo con el procedimiento que determine el pliego de cláusulas administrativas particulares.

De conformidad con el artículo 131. 1. c). 4º, el plan económico-financiero de la concesión establecerá la incidencia en las tarifas de los rendimientos de la demanda de utilización de la obra y, cuando exista, de los beneficios derivados de la explotación de la zona comercial, cuando no alcancen o cuando superen, respectivamente, los niveles mínimo y máximo que se consideren en la oferta.

4. La retribución por la utilización de la obra podrá ser abonada por la Administración teniendo en cuenta su utilización y en la forma prevista en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

5. El concesionario se retribuirá igualmente con los ingresos procedentes de la explotación de la zona comercial vinculada a la concesión, en el caso de existir ésta, según lo establecido en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

6. El concesionario deberá separar contablemente los ingresos provenientes de las aportaciones públicas y aquellos otros procedentes de las tarifas abonadas por los usuarios de la obra y, en su caso, los procedentes de la explotación de la zona comercial.

Artículo 256. Aportaciones públicas a la explotación.

Las Administraciones Públicas podrán otorgar al concesionario las siguientes aportaciones a fin de garantizar la

Finkatutako tarifa horiek gehienekoak dira, eta kontzesiodunak, egoki irudituz gero, tarifa horietatik beherakoak ere aplikatu ahal izango ditu.

3. Tarifak berrikusi egingo dira aldi berean, administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritako prozedura erabilita.

Lege honen 131. 1. c) 4 artikulua arabera, kontzesioaren ekonomia- eta finantza-planean egongo da ezarrita zer eragin izango duten tarifetan obraren erabilera-eskaerak dakartzan errendimenduek, eskaintzan aipatutako gutxienekora iristen ez badira; orobat, merkataritza-gunerik izanez gero, zer eragin izango duen tarifetan gunehorren ustiapenak dakartzan mozkinak, eskaintzan aipatutako gehieneko maila gainditzen badute.

4. Administrazioak ordain dezake obraren erabileragatik kontzesiodunak jaso behar duen ordainsaria, betiere, erabilera aintzat hartuta, eta administrazio-klausula zehatzen pleguan jasotako moduan.

5. Kontzesiodunak, era berean, kontzesioari lotutako merkataritza-gunearen ustiapenetik datozen diru-sarreraren bitartez ere jasoko du ordainsaria, halakorik izanez gero, betiere, administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritako moduan.

6. Kontzesiodunak, kontabilitatea egitean, bereizi egin beharko ditu, batetik, ekarpen publikoetatik datozen diru-sarrerak, eta, bestetik, obra-erabiltzaileek ordaindutako tarifetatik sortutakoak, bai eta, hala balegokio, merkataritza-gunearen ustiaketak dakartzanak ere.

256. artikulua. Ustiapena finantzatzeko ekarpen publikoak.

Herri-administrazioek honako ekarpen hauek egin ahal izango dizkiote kontzesiodunari, obra-ustiapenaren

viabilidad económica de la explotación de la obra:

a) Subvenciones, anticipos reintegrables, préstamos participativos, subordinados o de otra naturaleza, aprobados por el órgano de contratación para ser aportados desde el inicio de la explotación de la obra o en el transcurso de la misma cuando se prevea que vayan a resultar necesarios para garantizar la viabilidad económico-financiera de la concesión.

La devolución de los préstamos y el pago de los intereses devengados en su caso por los mismos se ajustarán a los términos previstos en la concesión.

b) Ayudas en los casos excepcionales en que, por razones de interés público, resulte aconsejable la promoción de la utilización de la obra pública antes de que su explotación alcance el umbral mínimo de rentabilidad.

Artículo 257. Obras públicas diferenciadas.

1. Cuando dos o más obras públicas mantengan una relación funcional entre ellas, el contrato de concesión de obra pública no pierde su naturaleza por el hecho de que la utilización de una parte de las obras construidas no esté sujeta a remuneración siempre que dicha parte sea, asimismo, competencia de la Administración concedente e incida en la explotación de la concesión.

2. El correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares especificará con claridad los aspectos concernientes a la obra objeto de concesión, según se determina en esta Ley, distinguiendo, a estos efectos, la parte objeto de remuneración de aquella que no lo es.

Los licitadores deberán presentar el correspondiente plan económico-

bideragarritasun ekonomikoa bermatzearren:

a) Kontratazio-organoak onartutako diru-laguntzak, aurrerakin itzulgarriak, partaidetza-maileguak (mendekoak edo beste era batekoak), guztiak ere obraren ustiapenaren hasieratik edo obraren ustiapenak iraun bitartean eman beharrekoak, kontzesioaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak izango direla aurreikusten denean.

Kontzesioan ezarritakoaren arabera itzuliko dira maileguak eta ordainduko dira sortutako interesak.

b) Laguntzak, interes publikoagatik eta salbuespenezko kasuetan obraren erabilera sustatzea komeni denean, herri-lanaren ustiapena errentagarritasunaren gutxieneko atalera iritsi baino lehen.

257. artikulua. Herri-lan bereziak.

1. Bi herri-lanek edo gehiagok erlazio funtzionala dutenean, herri-lanaren kontzesioko kontratuak ez du bere izaera galtzen eraikitako obraren zati baten erabilera ordaindu beharrekoa izan ez arren, betiere zati hori administrazio kontzesiogilearen eskumenekoa bada eta kontzesioaren ustiapenean eragina badu.

2. Administrazio-klausula zehatzen pleguak argi eta garbi zehaztuko ditu kontzesioko obrari dagozkion alderdiak, lege honetan xedatutakoaren arabera; horretarako, ondo bereiziko ditu ordaindu beharreko zatia eta ordaindu behar ez dena.

Lizitatzailleek dagokion plana aurkeztu beharko dute ekonomia- eta finantza-

financiero que contemple ambas partes de las obras.

3. En todo caso, para la determinación de las tarifas a aplicar por la utilización de la obra objeto de concesión se tendrá en cuenta el importe total de las obras realizadas.

Artículo 258. Mantenimiento del equilibrio económico del contrato.

1. El contrato de concesión de obras públicas deberá mantener su equilibrio económico en los términos que fueron considerados para su adjudicación, teniendo en cuenta el interés general y el interés del concesionario, de conformidad con lo dispuesto en el apartado siguiente.

2. La Administración deberá restablecer el equilibrio económico del contrato, en beneficio de la parte que corresponda, en los siguientes supuestos:

a) Cuando la Administración modifique, por razones de interés público y de acuerdo con lo previsto en el título V del libro I, las condiciones de explotación de la obra.

b) Cuando causas de fuerza mayor o actuaciones de la Administración determinaran de forma directa la ruptura sustancial de la economía de la concesión.

A estos efectos, se entenderá por causa de fuerza mayor las enumeradas en el artículo 231.

c) Cuando se produzcan los supuestos que se establezcan en el propio contrato para su revisión, de acuerdo con lo previsto en el apartado 4º de la letra c), y en la letra d) del artículo 131. 1.

3. En los supuestos previstos en el apartado anterior, el restablecimiento del equilibrio económico del contrato se realizará mediante la adopción de

arloak zehazteko, aipatutako obratzatietako bata eta bestea kontuan hartuta.

3. Nolanahi ere, kontzesioan emandako obra erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak zehazterakoan, egindako obra guztien zenbateko osoa hartuko da aintzakotzat.

258. artikulua. Kontratuaren oreka ekonomikoa zaintzea.

1. Herri-lanen kontzesioko kontratuak oreka ekonomikoari eutsi beharko dio esleipenerako kontuan izan ziren baldintzei jarraituz, interes orokorra eta kontzesiodunaren interesa biak aintzakotzat hartuta, hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera.

2. Administrazioak, egoera hauetakoren bat gertatuz gero, lehengoratu egin beharko du kontratuaren oreka ekonomikoa, dagokion aldearen onurarako:

a) Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik eta I. liburuko V. tituluaren aurreikusitakoaren arabera, obra ustiatzeko baldintzak aldatzen baditu.

b) Ezinbestek edo administrazioaren jardunak zuzenean eraginda, kontzesioaren ekonomiaren funtsa hausten bada.

Ondorio horietarako, 231. artikuluan jasotako egoerak joko dira ezinbestetzat.

c) Kontratuan bertan kontratua berrikusteko ezarritako kasuak gertatzen badira, 131. 1 artikulua c) hizkiko 4. zatian eta d) hizkian aurreikusitakoaren arabera.

3. Aurreko paragrafoan adierazitako egoeretan, kasuan-kasuan onartu beharreko neurriak onartu beharko dira kontratuaren oreka ekonomikoa

las medidas que en cada caso procedan.

Estas medidas podrán consistir en la modificación de las tarifas establecidas por la utilización de la obra, la reducción del plazo concesional, y, en general, en cualquier modificación de las cláusulas de contenido económico incluidas en el contrato.

Asimismo, en los casos previstos en el apartado 2. b), y siempre que la retribución del concesionario proviniere en más de un 50 por ciento de tarifas abonadas por los usuarios, podrá prorrogarse el plazo de la concesión por un período que no exceda de un 15 por ciento de su duración inicial.

En el supuesto de fuerza mayor previsto en el apartado 2. b), la Administración concedente asegurará los rendimientos mínimos acordados en el contrato siempre que aquella no impidiera por completo la realización de las obras o la continuidad de su explotación.

Sección 4ª Financiación privada

Subsección 1ª Emisión de títulos por el concesionario

Artículo 259. Emisión de obligaciones y otros títulos.

1. El concesionario podrá apelar al crédito en el mercado de capitales, tanto exterior como interior, mediante la emisión de toda clase de obligaciones, bonos u otros títulos semejantes admitidos en derecho.
2. No podrán emitirse títulos cuyo plazo de reembolso total o parcial finalice en fecha posterior al término de la concesión.
3. Las emisiones de obligaciones podrán contar con el aval del Estado y de sus organismos públicos, que se otorgará con arreglo a las

lehengoratzeko.

Neurriok izan daitezke: obra erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak aldatzea, kontzesiorako epea murriztea, eta, oro har, kontratuan eduki ekonomikoa duten klausulak era batera edo bestera aldatzea.

Halaber, 2. b) paragrafoan aurreikusitako kasuetan, kontzesioaren epea luzatzeko aukera egongo da (gehienez ere, hasierako epearen 100eko 15), betiere, kontzesiodunaren ordainsariaren 100eko 50 baino gehiago erabiltzaileek ordaindutako tarifatik baldin badator.

Administrazio kontzesiogileak, 2. b) paragrafoan aurreikusitako ezinbestekoren bat geratuz gero, kontratuan adostutako gutxieneko errendimenduak bermatu beharko ditu, betiere ezinbesteko horrek ez badu erabat eragozten obrak gauzatzea edo ustiapenak aurrera jarraitzea.

4. atala. Finantzaketa pribatua.

1. azpiatala. Kontzesiodunak tituluak jaulkitzea.

259. artikulua. Obligazioak edo beste titulu batzuk jaulkitzea.

1. Kontzesiodunak, zuzenbidean onartutako era guztietako obligazioak, bonuak edo antzeko beste titulu batzuk jaulkita, kreditua eskatu ahal izango du kapital-merkatuan, barnekoan zein kanpokoan.
2. Itzulketa osoa edo partziala egiteko epea kontzesioa bukatu ondoren amaitzen zaion titulurik ezingo da jaulki.
3. Obligazio-jaulkipen horiek estatuaren eta haren organismo autonomoen abala eduki ahal izango dute; abal hori, betiere, aurrekontu-arauetan ezarritako

prescripciones de la normativa presupuestaria.

La concesión del aval por parte de las Comunidades Autónomas, entidades locales, de sus organismos públicos respectivos y demás sujetos sometidos a esta Ley se otorgará conforme a lo que establezca su normativa específica.

4. La emisión de las obligaciones, bonos u otros títulos referidos deberá ser comunicada al órgano de contratación en el plazo máximo de un mes desde la fecha en que cada emisión se realice.

5. A las emisiones de valores reguladas en este artículo y en el siguiente les resultará de aplicación lo dispuesto en la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores.

6. Si la emisión ha sido objeto de registro ante la Comisión Nacional del Mercado de Valores y el riesgo financiero correspondiente a los valores ha sido evaluado positivamente por una entidad calificadora reconocida por dicha entidad supervisora, no será de aplicación el límite del importe previsto en el artículo 405 del Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital y en el párrafo segundo del artículo 1 de la Ley 211/1964, de 24 de diciembre, sobre regulación de la emisión de obligaciones por sociedades que no hayan adoptado la forma de anónimas, asociaciones u otras personas jurídicas y la constitución del sindicato de obligacionistas.

Artículo 260. Incorporación a títulos negociables de los derechos de crédito del concesionario.

1. Podrán emitirse valores que representen una participación en uno o varios de los derechos de crédito a favor del concesionario consistentes

aginduen arabera eman beharko da.

Autonomia-erkidegoek, toki-erakundeek, haien organismo publikoek eta lege honen mende dauden gainerako guztiek, abala eman behar dutenean, berariazko araudietan ezarritakoaren arabera jardungo dute.

4. Obligazioen, bonuen edo bestelako tituluen jaulkipena eginez gero, kontratazio-organoari jakinarazi beharko zaio horren berri, jaulkipen bakoitza egin den egunetik hasita, hilabeteko epean gehienez ere.

5. Artikulu honetan eta hurrengoan araututa dauden balore-jaulkipenei dagokienez, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoa aplikatu beharko da.

6. Jaulkipena Balore Merkatuaren Estatu Batzordean erregistratu bada, eta erakunde ikuskatzaile horrek onartutako erakunde kalifikatzaile batek aldeko irizpena eman badu balore horien gaineko finantza-arriskuari dagokionez, orduan, ez da aplikatuko Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 405. artikuluan eta abenduaren 24ko 211/1964 Legearen 1. artikuluko bigarren lerrokadan ezarritako gehienezko muga (sozietate anonimoaren izaera juridikoa hartu ez duten sozietateen, elkarteen eta bestelako pertsona juridikoen obligazio-jaulkipenak eta obligaziodunen sindikatuaren eraketa arautzeari buruzkoa da 211/1964 Legea).

260. artikulua. Kontzesiodunaren kreditu-eskubideak titulu negoziagarri bihurtzea.

1. Kontzesiodunaren aldeko kreditu-eskubideetako bateko edo batzuetako partaidetza ordezkatzan duten baloreak jaulkitzeko aukera ere izango da; tarifak,

en el derecho al cobro de las tarifas, los ingresos que pueda obtener por la explotación de los elementos comerciales relacionados con la concesión, así como los que correspondan a las aportaciones que, en su caso, deba realizar la Administración.

La cesión de estos derechos se formalizará en escritura pública que, en el supuesto de cesión de las aportaciones a efectuar por la Administración, se deberá notificar al órgano contratante y ello sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo quinto de este apartado.

Los valores negociables anteriormente referidos se representarán en títulos o en anotaciones en cuenta, podrán realizarse una o varias emisiones y podrán afectar derechos de crédito previstos para uno o varios ejercicios económicos distintos.

Tanto las participaciones como directamente los derechos de crédito a que se refiere el primer párrafo de este apartado podrán incorporarse a fondos de titulización de activos que se registrarán por la normativa específica que les corresponda.

De la suscripción y tenencia de estos valores que no esté limitada a inversores institucionales o profesionales, se dejará nota marginal en la inscripción registral de la concesión correspondiente.

Asimismo, las características de las emisiones deberán constar en las memorias anuales de las sociedades que las realicen.

La emisión de estos valores requerirá autorización administrativa previa del órgano de contratación, cuyo otorgamiento sólo podrá denegarse cuando el buen fin de la concesión u

kontzesioari lotutako merkataritzaguneen ustiakuntzatik datozen diru-sarrerak, eta, hala dagokionean, administrazioak egin beharreko ekarpenak kobratzeko eskubideak dira kontzesiodunaren aldeko kreditu-eskubide horiek.

Eskubide horien lagapena eskritura publikoa eratuta gauzatu behar da; administrazioak egin beharreko ekarpenak laga behar izanez gero, organo kontratatzaileari jakinarazi beharko zaio horren berri, hargatik eragotzi gabe paragrafo honen bosgarren lerrokadan ezarritakoa.

Arestian aipatutako balore negoziagarriak tituluen bidez edo kontuan oharra eginez adieraziko dira; jaulkipen bat edo bat baino gehiago egin ahal izango dira, eta ekitaldi ekonomiko baterako edo batzuetarako diren kreditu-eskubideetan izango dute eragina.

Bai paragrafo honetako lehen lerrokadan aipatutako partaidetzak, bai kreditu-eskubideak eurak ere, aktiboak balore negoziagarri bihurtzeko funtsetan sartu ahal izango dira, eta horiei dagokien berriazko araudiaren pean izango dira.

Balore hauek harpidetzea eta edukitzea inbertsiogile instituzional edo profesionalentzat mugatuta ez dagoen heinean, dagokion kontzesioaren erregistroko inskripzioan orri-bazterreko oharra idatziko da horren berri emanez.

Halaber, jaulkipen-ezaugarriak ere jasota geratu behar dira jaulkipena egin duten sozietateen urteko txostenean.

Balore hauek jaulki ahal izateko, kontratazio-organok horretarako administrazio-baimena eman beharko du aurretiaz; kontzesioaren bukaera onak edo interes publikoko beste

otra razón de interés público relevante lo justifiquen.

2. Siempre que designen previamente a una persona física o jurídica que actúe como representante único ante la Administración a los solos efectos previstos en este apartado, los tenedores de valores a que se refiere el apartado 1 de este artículo podrán ejercer las facultades que se atribuyen al acreedor hipotecario en el artículo 262. Si, además, las operaciones a que dicho apartado 1 se refiere hubieran previsto expresamente la satisfacción de los derechos de los tenedores antes del transcurso del plazo concesional, éstos podrán ejercer las facultades a que se refiere el apartado 3 del citado artículo 262 a partir del vencimiento de los títulos.

3. Cuando se produzca causa de resolución de la concesión imputable al concesionario sin que los acreedores hayan obtenido el reembolso correspondiente a sus títulos, la Administración concedente podrá optar por alguna de las siguientes actuaciones:

a) Salvo que las causas de extinción fuesen las previstas en el artículo 269.

b), acordar el secuestro de la concesión conforme a lo previsto en el artículo 251 de esta Ley a los solos efectos de satisfacer los derechos de los acreedores sin que el concesionario pueda percibir ingreso alguno.

b) Resolver la concesión, acordando con el representante de los acreedores la cuantía de la deuda y las condiciones en que deberá ser amortizada.

A falta de acuerdo, la Administración quedará liberada con la puesta a disposición de los acreedores de la

arrazoiren batek halaxe eskatzen duenean, orduan bakarrik ukatu ahal izango da baimen hori.

2. Artikulu honetako lehen paragrafoan aipatzen diren balore-erakundeak, aurretiaz pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzen badute administrazioaren aurrean ordezkari bakar modura jarduteko –paragrafo honetan jasotako ondorioetarako soilik–, 262. artikuluan hartzekodun hipotekarioari aitortzen zaizkion ahalmen berberak baliatu ahal izango dituzte. Horrez gain, lehen paragrafo horretan aipatutako eragiketetan berriaz jasota badago erakundearen eskubideak kontzesio-epea igaro baino lehenago gauzatuko direla, orduan, 262. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako ahalmen horiek baliatu ahal izango dituzte erakundeak tituluen epemugatik aurrera.

3. Kontzesiodunari egotz dakioken kausaren bat dela-eta kontzesioa suntsiarazita, hartzekodunek ez badute beren tituluei dagokien diru-itzulketa eskuratu, administrazio kontzesiogileak jardun hauetakoren bat aukeratu ahal izango du:

Los órganos de contratación, la Junta Consultiva de Contratación Administrativa del Estado y los órganos competentes para resolver el recurso especial a que se refiere el artículo 40 de esta Ley notificarán a la Comisión Nacional de la Competencia cualesquiera hechos de los que tengan conocimiento en el ejercicio de sus funciones que puedan constituir infracción a la legislación de defensa de la competencia.

En particular, comunicarán cualquier indicio de acuerdo, decisión o recomendación colectiva, o práctica concertada o conscientemente paralela entre los licitadores, que tenga por objeto, produzca o pueda producir el efecto de impedir, restringir o falsear la competencia en el proceso de contratación.

Disposición adicional vigésima cuarta. *Prestación de asistencia sanitaria en situaciones de urgencia.*

1. En los contratos relativos a la prestación de asistencia sanitaria en supuestos de urgencia y por importe inferior a 30. 000 euros, no serán de aplicación las disposiciones de esta Ley relativas a la preparación y adjudicación del contrato.

2. Para proceder a la contratación en estos casos bastará que, además justificarse la urgencia, se determine el objeto de la prestación, se fije el precio a satisfacer por la asistencia y se designe por el órgano de contratación la empresa a la que corresponderá la ejecución.

kontratu izango.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Lehia askearen aurkako jokabideak.*

Kontratazio-organoek, Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak eta lege honen 40. artikuluan aipatzen diren errekurso bereziak ebazteko eskumena daukaten organoek Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko diote beren eginkizunak betetzerakoan ezagutzen duten zernahi gertakari, baldin eta gertakari horiek lehiaren babesari buruzko legeria hausten badute.

Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen zantzu oro, edo lizitatzailen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jarduera oro jakinaraziko dute, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea izan badaiteke.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Osasun-sorospeneko prestazioa larrialdi-egoeretan.*

1. Osasun-sorospeneko prestazioa presazko kasuetan emateari buruzko kontratuetan, 30. 000 eurotik beherakoak direnean, ez dira aplikatuko lege honetan kontratuak prestatzeari eta esleitzeari buruz ezarritako xedapenak.

2. Kasu hauetan kontratuak egiteko, presa justifikatzeaz gainera, prestazioaren objektua zehaztu beharko da, sorospenagatik ordaindu beharreko prezioa finkatu beharko da, eta kontratazio-organoak zehaztu beharko du kontratua gauzatzea zein enpresari dagokion.

Disposición adicional vigésima quinta. Régimen jurídico de la «Empresa de Transformación Agraria, Sociedad Anónima» (TRAGSA), y de sus filiales.

1. El grupo de sociedades mercantiles estatales integrado por la «Empresa de Transformación Agraria, Sociedad Anónima» (TRAGSA), y las sociedades cuyo capital sea íntegramente de titularidad de ésta, tiene por función la prestación de servicios esenciales en materia de desarrollo rural, conservación del medioambiente, atención a emergencias, y otros ámbitos conexos, con arreglo a lo establecido en esta disposición.

2. TRAGSA y sus filiales integradas en el grupo definido en el apartado anterior tienen la consideración de medios propios instrumentales y servicios técnicos de la Administración General del Estado, las Comunidades Autónomas y los poderes adjudicadores dependientes de ellas, estando obligadas a realizar, con carácter exclusivo, los trabajos que éstos les encomienden en las materias señaladas en los apartados 4 y 5, dando una especial prioridad a aquéllos que sean urgentes o que se ordenen como consecuencia de las situaciones de emergencia que se declaren.

De acuerdo con esta obligación, los bienes y efectivos de TRAGSA y sus filiales podrán incluirse en los planes y dispositivos de protección civil y de emergencias.

Las relaciones de las sociedades del grupo TRAGSA con los poderes adjudicadores de los que son medios propios instrumentales y servicios técnicos tienen naturaleza instrumental y no contractual, articulándose a través de

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. «Empresa de Transformación Agraria, Sociedad Anónima» (TRAGSA) sozietatearen eta haren filialen araubide juridikoa.

1. «Empresa de Transformación Agraria, Sociedad Anónima» (TRAGSA) sozietateak eta kapital osoa sozietate horren titulartasunekoak duten sozietateek osatutako merkataritza-sozietate estatalen taldeak funtsezko zerbitzu batzuk eskaintzea du eginkizun, honako arlo hauetan: landa-garapena, ingurumena zaintzea, larrialdietako arreta eta haiekin lotutako beste arlo batzuk, xedapen honetan ezarritakoaren arabera.

2. TRAGSA eta aurreko paragrafoan zehaztutako taldea osatzen duten haren filialak Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta haien mendeko botere esleitzaille bitarteko lagungarri propioztat eta zerbitzu teknikoztat hartzen dira, eta behartuta daude 4. eta 5. paragrafoetan adierazitako gaitan beren gomendio uzten diren lanak eskusiboki egitera; lehentasun berezia izango dute presazkoek edo larrialdikotzat jotako egoeren ondorioz agintzen direnek.

Betebehar horien arabera, TRAGSAren eta haren filialen ondasun eta bitartekoak babes zibileko eta larrialdietako planetan eta neurrietan sartu ahal izango dira.

TRAGSA taldeko sozietateek tresna gisako bitarteko propioztat eta zerbitzu teknikoztat dituzten botere esleitzailleekin dituzten harremanak tresna gisakoak izango dira, eta ez kontratuzkoak, eta lege honen 24. 6 artikuluan aurreikusitako kudeaketa-

encomiendas de gestión de las previstas en el artículo 24. 6 de esta Ley, por lo que, a todos los efectos, son de carácter interno, dependiente y subordinado.

La comunicación efectuada por uno de estos poderes adjudicadores encargando una actuación a alguna de las sociedades del grupo supondrá la orden para iniciarla.

3. El capital social de TRAGSA será íntegramente de titularidad pública.

Las Comunidades Autónomas podrán participar en el capital social de TRAGSA mediante la adquisición de acciones, cuya enajenación será autorizada por el Ministerio de Economía y Hacienda, a iniciativa del Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino.

Las Comunidades Autónomas sólo podrán enajenar sus participaciones a favor de la Administración General del Estado o de organismos de derecho público vinculados o dependientes de aquélla.

4. Las sociedades del grupo TRAGSA prestarán, por encargo de los poderes adjudicadores de los que son medios propios instrumentales, las siguientes funciones:

a) La realización de todo tipo de actuaciones, obras, trabajos y prestación de servicios agrícolas, ganaderos, forestales, de desarrollo rural, de conservación y protección del medio natural y medioambiental, de acuicultura y de pesca, así como los necesarios para el mejor uso y gestión de los recursos naturales, y para la mejora de los servicios y recursos públicos, incluida la ejecución de obras de conservación o enriquecimiento del Patrimonio Histórico Español en el medio rural, al

gomendioen bidez egituratuko dira; hori dela eta, harreman horiek, ondorio guztietarako, barnekoak, mendekoak eta menderatuak dira.

Botere esleitzaille hauetakoren batek taldeko sozietateetako bati jardueraren bat egiteko aginduz egiten dion jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da.

3. TRAGSAren kapital soziala, oso-osorik, titulartasun publikokoa izango da.

Autonomia-erkidegoek TRAGSAren kapital sozialean parte hartu ahal izango dute, akzioak eskuratuz. Akzio horien inorentzea Ekonomia eta Ogasun Ministerioak baimendu beharko du, Ingurumen, Landagune eta Itsas Ministerioaren ekimenez.

Autonomia-erkidegoek Estatuko Administrazio Orokorraren alde bakarrik inorendu ditzakete beren partaidetzak, edo hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko organismoen alde.

4. TRAGSA taldeko sozietateek, tresna gisako bitarteko propietzat dituzten botere esleitzailleen aginduz, honako eginkizun hauek izango dituzte:

a) Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako, landa-garapeneko, ingurunearen eta ingurumenaren kontserbazio eta babeseko, akuikulturako eta arrantzako era guztietako jarduerak, obrak, lanak eta prestazioak, bai eta baliabide naturalak hobeto erabiltzeko eta kudeatzeko, eta zerbitzu eta baliabide publikoak hobetzeko beharrezko direnak ere, landa-inguruko Espainiako Ondare Historikoa kontserbatzeko eta aberasteko obrak gauzatzea barne dela, Espainiako Ondare Historikoari buruzko

amparo de lo establecido en el artículo 68 de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español.

b) La actividad agrícola, ganadera, animal, forestal y de acuicultura y la comercialización de sus productos, la administración y la gestión de fincas, montes, centros agrarios, forestales, medioambientales o de conservación de la naturaleza, así como de espacios y de recursos naturales.

c) La promoción, investigación, desarrollo, innovación, y adaptación de nuevas técnicas, equipos y sistemas de carácter agrario, forestal, medioambiental, de acuicultura y pesca, de protección de la naturaleza y para el uso sostenible de sus recursos.

d) La fabricación y comercialización de bienes muebles para el cumplimiento de sus funciones.

e) La prevención y lucha contra las plagas y enfermedades vegetales y animales y contra los incendios forestales, así como la realización de obras y tareas de apoyo técnico de carácter urgente.

f) La financiación, en los términos que se establezcan reglamentariamente, de la construcción o de la explotación de infraestructuras agrarias, medioambientales y de equipamientos de núcleos rurales, así como la constitución de sociedades y la participación en otras ya constituidas, que tengan fines relacionados con el objeto social de la empresa.

g) La planificación, organización, investigación, desarrollo, innovación, gestión, administración y supervisión de cualquier tipo de servicios ganaderos, veterinarios, de seguridad y sanidad animal y alimentaria.

h) La recogida, transporte,

ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren babesean.

b) Nekazaritzako, abeltzaintzako, animalien arloko, basogintzako eta akuikulturako jarduera, eta jarduera horietako produktuak merkaturatzea; finkak, mendiak, laborantza-zentroak, basogintza-zentroak, ingurumen-zentroak edo natura artatzeko zentroak eta gunee eta baliabide naturalak administratu eta kudeatzea.

c) Laborantzako, basogintzako, ingurumeneko, akuikultura eta arrantzako, natura babesteko eta baliabideen erabilera iraunkorrerako teknika, ekipamendu eta sistema berrien sustapena, ikerketa, garapena, berrikuntza eta egokitzapena.

d) Bere eginkizunak betetzeko ondasun higigarriak fabrikatzea eta merkaturatzea.

e) Landareen eta animalien izurriteak eta gaixotasunak prebenitzea eta haien kontra eta baso-suteen kontra borrokatzea, bai eta presazko obrak eta laguntza teknikoko lanak egitea ere.

f) Landa-guneetako laborantzako, ingurumeneko eta ekipamenduko azpiegituren eraikuntza edo ustiapena finantzatzea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, bai eta enpresaren xede sozialarekin lotutako sozietateak eratzea eta aurretik eratuta dauden horrelako beste sozietate batzuetan parte hartzea ere.

g) Abeltzaintzako, albaitaritzako, animalien eta elikagaien segurtasuneko eta osasuneko era guztietako zerbitzuak planifikatzea, antolatzea, ikertzea, garatzea, berritzea, kudeatzea, administratzea eta gainbegiratzea.

h) Animalia-, landare- eta mea-etorkiko

almacenamiento, transformación, valorización, gestión y eliminación de productos, subproductos y residuos de origen animal, vegetal y mineral.

i) La realización de tareas o actividades complementarias o accesorias a las citadas anteriormente.

Las sociedades del grupo TRAGSA también estarán obligadas a satisfacer las necesidades de los poderes adjudicadores de los que son medios propios instrumentales en la consecución de sus objetivos de interés público mediante la realización, por encargo de los mismos, de la planificación, organización, investigación, desarrollo, innovación, gestión, administración y supervisión de cualquier tipo de asistencias y servicios técnicos en los ámbitos de actuación señalados en el apartado anterior, o mediante la adaptación y aplicación de la experiencia y conocimientos desarrollados en dichos ámbitos a otros sectores de la actividad administrativa.

Asimismo, las sociedades del grupo TRAGSA estarán obligadas a participar y actuar, por encargo de los poderes adjudicadores de los que son medios propios instrumentales, en tareas de emergencia y protección civil de todo tipo, en especial, la intervención en catástrofes medioambientales o en crisis o necesidades de carácter agrario, pecuario o ambiental; a desarrollar tareas de prevención de riesgos y emergencias de todo tipo; y a realizar actividades de formación e información pública en supuestos de interés público y, en especial, para la prevención de riesgos, catástrofes o emergencias.

5. Las sociedades del grupo TRAGSA podrán realizar actuaciones de apoyo y servicio institucional a la cooperación

produktuak, azpiproduktuak eta hondakinak biltzea, garraiatzea, biltegitratzea, eraldatzea, baloratzea, kudeatzea eta ezabatzea.

i) Arestian aipatutakoen aldean osagarriak eta gehigarriak diren beste lan edo jarduera batzuk egitea.

TRAGSA taldeko sozietateak ere behartuta egongo dira eurak tresna gisako bitarteko propietzat dituzten botere esleitzzaileen interes publikoko helburuak lortzen laguntzera, honako hauen bitartez: alde batetik, botere horien aginduz, era guztietako aholkularitzak eta zerbitzu teknikoak planifikatuz, antolatuz, ikertuz, garatuz, berrituz, kudeatuz, administratuz eta ikuskatuz, aurreko paragrafoan adierazitako jarduera-eremuetan, edo, bestetik, eremu horietan garatutako esperientzia eta ezagutzak administrazio-jardueraren beste sektore batzuetara egokituz eta aplikatuz.

Era berean, TRAGSA taldeko sozietateak behartuta daude, eurak tresna gisako bitarteko propietzat dituzten botere esleitzzaileen aginduz, era guztietako larrialdiko eta babes zibileko lanetan parte hartzera eta jardutera, bereziki, ingurumeneko hondamendietan edo nekazaritzako, abeltzaintzako edo ingurumeneko krisi edo beharizanetan esku hartzera; era guztietako arrisku-prebentzioko eta larrialdietako lanak garatzera, eta, interes publikoko kasuetan, prestakuntza- eta informazio-jarduerak egitera eta, bereziki, arriskuak, hondamendiak eta larrialdiak prebenitzeko jarduerak egitera.

5. TRAGSA taldeko sozietateek Espainiaren nazioarteko lankidetzarako laguntza eta zerbitzu instituzionaleko

española en el ámbito internacional.

6. Las sociedades del grupo TRAGSA no podrán participar en los procedimientos para la adjudicación de contratos convocados por los poderes adjudicadores de los que sea medio propio.

No obstante, cuando no concurra ningún licitador podrá encargarse a estas sociedades la ejecución de la actividad objeto de licitación pública.

En el supuesto de que la ejecución de obras, la fabricación de bienes muebles o la prestación de servicios por las sociedades del grupo se lleve a cabo con la colaboración de empresarios particulares, el importe de la parte de prestación a cargo de éstos deberá ser inferior al 50 por 100 del importe total del proyecto, suministro o servicio.

7. El importe de las obras, trabajos, proyectos, estudios y suministros realizados por medio del grupo TRAGSA se determinará aplicando a las unidades ejecutadas las tarifas correspondientes.

Dichas tarifas se calcularán de manera que representen los costes reales de realización y su aplicación a las unidades producidas servirá de justificante de la inversión o de los servicios realizados.

La elaboración y aprobación de las tarifas se realizará por las Administraciones de las que el grupo es medio propio instrumental, con arreglo al procedimiento establecido reglamentariamente.

8. A los efectos de la aplicación de la presente Ley, las sociedades integradas en el grupo TRAGSA tendrán la consideración de poderes adjudicadores de los previstos en el artículo 3. 3.

jarduerak egin ahal izango dituzte.

6. TRAGSA taldeko sozietateek ezingo dute parte hartu eurak bitarteko propietzat dituzten botere esleitzailleek kontratuak esleitzeko egindako deialdietan.

Hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez denean, sozietate horiei agindu ahal izango zaie lizitazio publikoaren gai den jarduera gauzatzea.

Baldin eta taldeko sozietateek egin beharrekoak (obrak gauzatzea, ondasun higigarriak fabrikatzea edo zerbitzuak ematea) enpresaburu partikularren lankidetzaz egiten bada, prestazioan enpresaburuaren kontura den zatiaren zenbatekoa proiektu, hornidura edo zerbitzuaren guztizko zenbatekoaren 100eko 50etik beherakoa izan beharko da.

7. TRAGSA taldearen bitartez egindako obra, lan, proiektu, azterlan eta horniduren zenbatekoa gauzatutako unitateei kasuan kasuko tarifak aplikatuz zehaztuko da.

Tarifa horiek, betiere, lanak egiteko benetako kostuen arabera kalkulatu dira, eta ekoiztako unitateei tarifok aplikatzea aski izango da egindako inbertsioak edo zerbitzuak justifikatzeko.

Tarifak administrazioek prestatu eta onartuko dituzte –taldea tresna gisako bitarteko propietzat duten administrazioek, alegia–, erregelamenduz ezarritako prozeduraren arabera.

8. Lege hau aplikatze aldera, TRAGSA taldeko kide diren sozietateak botere esleitzailatzat hartuko dira (3. 3 artikuluan aurreikusitako botere esleitzailatzat).

Disposición adicional vigésima sexta. Protección de datos de carácter personal.

1. Los contratos regulados en la presente Ley que impliquen el tratamiento de datos de carácter personal deberán respetar en su integridad la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y su normativa de desarrollo.

2. Para el caso de que la contratación implique el acceso del contratista a datos de carácter personal de cuyo tratamiento sea responsable la entidad contratante, aquél tendrá la consideración de encargado del tratamiento.

En este supuesto, el acceso a esos datos no se considerará comunicación de datos, cuando se cumpla lo previsto en el artículo 12. 2 y 3 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

En todo caso, las previsiones del artículo 12. 2 de dicha Ley deberán de constar por escrito.

Cuando finalice la prestación contractual los datos de carácter personal deberán ser destruidos o devueltos a la entidad contratante responsable, o al encargado de tratamiento que ésta hubiese designado.

El tercero encargado del tratamiento conservará debidamente bloqueados los datos en tanto pudieran derivarse responsabilidades de su relación con la entidad responsable del tratamiento.

3. En el caso de que un tercero trate datos personales por cuenta del contratista, encargado del tratamiento, deberán de cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que dicho tratamiento se haya

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak babestea.

1. Lege honetan araututako kontratuek, datu pertsonalen tratamendua dakartenek, oso-osorik errespetatu beharko dituzte Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta lege hori garatzeko arauak.

2. Baldin eta, kontratazioa dela eta, kontratistak izaera pertsonaleko datuetara sartu behar bada, eta datuon tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea bada, kontratista izango da tratamenduaren arduradun.

Kasu horretan, datu horietara sartzea ez da hartuko datuen komunikaziotzat, baldin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. 2 eta 3 artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada.

Edozein kasutan, lege horretako 12. 2 artikuluko aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.

Kontratu-prestazioa amaitzen denean, datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira, edo erakunde kontratatzaile arduradunari itzuli, edo hark izendatutako tratamendu-arduradunari.

Tratamendu-arduradunak gorde egingo ditu datuak, behar bezala blokeatuta, tratamenduaz arduratzen den erakunde erantzulearekin izandako harremanagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

3. Hirugarren batek datu pertsonalak tratatzen baditu kontratistaren edo tratamendu-arduradunaren kontura, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Tratamendu hori zehaztu izana

especificado en el contrato firmado por la entidad contratante y el contratista.

b) Que el tratamiento de datos de carácter personal se ajuste a las instrucciones del responsable del tratamiento.

c) Que el contratista encargado del tratamiento y el tercero formalicen el contrato en los términos previstos en el artículo 12. 2 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

En estos casos, el tercero tendrá también la consideración de encargado del tratamiento.

Disposición adicional vigésima séptima. Agrupaciones europeas de cooperación territorial.

Las Agrupaciones europeas de cooperación territorial reguladas en el Reglamento (CE) número 1082/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de julio de 2006, cuando tengan su domicilio social en España, ajustarán la preparación y adjudicación de sus contratos a las normas establecidas en esta Ley para los poderes adjudicadores.

Disposición adicional vigésima octava. Adquisición Centralizada de medicamentos y productos sanitarios con miras al Sistema Nacional de Salud.

1. Mediante Orden del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, previo informe favorable de la Dirección General del Patrimonio del Estado, se podrá declarar de adquisición centralizada los suministros de medicamentos y productos sanitarios que se contraten en el ámbito estatal por los diferentes órganos y organismos.

La contratación de estos suministros deberá efectuarse a través del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad.

erakunde kontratatzaileak eta kontratistak sinatutako kontratuan.

b) Izaera pertsonaleko datuen tratamendua tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera egitea.

c) Tratamendu-arduraduna den kontratistak eta hirugarrenak kontratua formalizatzea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. 2 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Kasu horietan, hirugarrena ere tratamendu-arduradun dela joko da.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Lurralde-lankidetzako talde europarrak.

2006ko uztailaren 5eko Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1082/2006 (EE) Erregelamenduan araututako lurralde-lankidetzako talde europarrek, sozietate-egoitza Espainian dutenean, lege honetan botere esleitzailentzat ezarritako arauen arabera prestatuko eta esleituko dituzte kontratuak.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Osasun Sistema Nazionalerako sendagaiak eta osasun-produktuak eskuratzeko sistema zentralizatua.

1. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren aginduz, organo eta organismoek estatuaren eremuan kontratatzen dituzten botiken eta osasun-produktuen hornidurak zentralizatuta eskuratzekoak direla deklaratu ahal izango da, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txosten alde zuzenarekin.

Hornidura horiek Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren bitartez kontratatu beharko dira.

La financiación de los correspondientes contratos correrá a cargo del organismo o entidad peticionarios.

Las competencias que el artículo 206 atribuye a la Dirección General del Patrimonio del Estado y al Ministerio de Economía y Hacienda corresponderán en relación al suministro de medicamentos y productos sanitarios al Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad.

Las Comunidades Autónomas y las entidades locales, así como las entidades y organismos dependientes de ellas e integradas en el Sistema Nacional de Salud, podrán adherirse al sistema de adquisición centralizada estatal de medicamentos y productos sanitarios, para la totalidad de los suministros incluidos en el mismo o sólo para determinadas categorías de ellos.

La adhesión requerirá la conclusión del correspondiente acuerdo con el Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad.

2. Los órganos de contratación de la Administración General del Estado, de las Comunidades Autónomas y de las entidades locales, así como las entidades y organismos dependientes de ellas e integradas en el Sistema Nacional de Salud, podrán concluir de forma conjunta acuerdos marco de los previstos en el artículo 196, con uno o varios empresarios con el fin de fijar las condiciones a que habrán de ajustarse los contratos de suministro de medicamentos y productos sanitarios que pretendan adjudicar durante un período determinado, siempre que el recurso a estos instrumentos no se efectúe de forma abusiva o de modo que la competencia se vea obstaculizada, restringida o falseada.

Eskatzen dituen organismo edo erakundeak finantzatuko ditu kasuan kasuko kontratuak.

Botiken eta osasun-produktuen hornidurari dagokionez 206. artikulua Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioari aitortzen dizkien eskumenak Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioarenak izango dira.

Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek, baita haien mendekoak diren eta Osasun Sistema Nazionalean sartuta dauden erakunde eta organismoek ere, Estatuko sistemara atxikitzeak aukera izango dute botikak eta osasun-produktuak modu zentralizatuan eskuratzeko, sistema horren barruko hornidura guztiei edo kategoria jakin batzuei lotuta.

Sistemara atxikitzeak, hitzarmen bat egin beharko dute Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioarekin.

2. Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako kontratazio-organismoek, baita haien mende dauden eta Osasun Sistema Nazionalean sartuta dauden erakunde eta erakundeek ere, modu bateratuan egin ahal izango dituzte 196. artikuluan aurreikusitako esparru-hitzarmenak, enpresaburu batekin edo gehiagorekin, botikak eta osasun-produktuak hornitzeko epe jakin batean esleitu nahi dituzten kontratuek bete beharko dituzten baldintzak finkatzearen, betiere, bitarteko horiek ez badira gehiegikeriaz erabiltzen edo ez badute lehia eragozten, murrizten edo faltsutzen.

Disposición adicional vigésima novena. Fórmulas institucionales de colaboración entre el sector público y el sector privado.

1. Los contratos públicos y concesiones podrán adjudicarse directamente a una sociedad de economía mixta en la que concurra capital público y privado, siempre que la elección del socio privado se haya efectuado de conformidad con las normas establecidas en esta Ley para la adjudicación del contrato cuya ejecución constituya su objeto, y en su caso, las relativas al contrato de colaboración entre el sector público y el sector privado, y siempre que no se introduzcan modificaciones en el objeto y las condiciones del contrato que se tuvieron en cuenta en la selección del socio privado.

2. Sin perjuicio de la posibilidad de utilizar medios de financiación tales como emisión de obligaciones, empréstitos o créditos participativos, las sociedades de economía mixta constituidas para la ejecución de un contrato público previstas en esta disposición adicional podrán:

a) Acudir a ampliaciones de capital, siempre que la nueva estructura del mismo no modifique las condiciones esenciales de la adjudicación salvo que hubiera estado prevista en el contrato.

b) Titular los derechos de cobro que ostenten frente a la entidad adjudicadora del contrato cuya ejecución se le encomiende, previa autorización del órgano de contratación, cumpliendo los requisitos previstos en la normativa sobre mercado de valores.

Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzarako formula instituzionalak.

1. Kontratu publikoak eta kontzesioak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio kapital publikoa eta pribatua dauzkan ekonomia mistoko sozietate bati, betiere, bazkide pribatua lege honetan ezarritako arauen arabera aukeratu bada –dagokion xederako kontratua esleitzeko ezarritako arauen arabera, esan nahi da, eta, hala badagokio, baita sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako kontratuari buruzko arauen arabera–, eta ez bada aldaketarik egiten bazkide pribatua aukeratzeko kontuan hartu ziren kontratuaren objektuan eta baldintzetan.

2. Zenbait finantzabide erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe –adibidez, obligazioak, jesapenak edo partaidetza-kredituak jaulkitzea–, kontratu publiko bat gauzatzeko eraturako ekonomia mistoko sozietateek, xedapen gehigarri honetan aurreikusita daudenek, aukeran dute:

a) Kapital-gehikuntzetara jotzea; betiere, kapitalaren egitura berriak ez baditu esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen, kontratuan aurreikusita dagoenean salbu.

b) Beren esku uzten diren kontratuen erakunde esleitzaitzen aurrean dauzkaten kobrantza-eskubideak titularizatzea, aldezturik kontratazio-organoren baimena lortuta, betiere balore-merkatuei buruzko araudian aurreikusitako baldintzak betez.

**Disposición adicional trigésima.
Régimen de los órganos
competentes para resolver los
recursos de la Administración
General del Estado y Entidades
Contratantes adscritas a ella.**

1. A medida que el número de asuntos sometidos al conocimiento y resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales lo exija se podrán constituir Tribunales Administrativos Territoriales de Recursos Contractuales con sede en cada una de las capitales de Comunidad Autónoma.

Estos Tribunales tendrán competencia exclusiva para la resolución de los recursos a que se refiere el artículo 40 de esta Ley, interpuestos contra los actos de la Administración territorial del Estado o de los Organismos y Entidades dependientes del mismo que tengan competencia en todo o parte del territorio de la correspondiente Comunidad Autónoma.

El nombramiento del Presidente y los vocales de estos Tribunales se hará en los mismos términos y requisitos previstos para el del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales, si bien sólo se le exigirán diez años de antigüedad.

2. Reglamentariamente se incrementará el número de vocales que hayan de integrar los Tribunales Territoriales a medida que lo requiera el volumen de asuntos sometidos a su conocimiento.

La primera renovación de los Tribunales se hará de forma parcial a los tres años del nombramiento.

A este respecto, antes de cumplirse el plazo indicado se determinará, mediante sorteo, los que deban cesar.

En cualquier caso, cesado un vocal,

**Hogeita hamargarren xedapen
gehigarria. Estatuko Administrazio
Orokorren eta hari atxikitako
erakunde kontratatzaileen
errekurtsoak ebazteko eskumena
duten organoen araubidea.**

1. Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak aztertu eta ebatzi beharreko gaien kopuruak hala eskatzen duenean, kontratu-errekurtsoen lurraldekako administrazio-azuzitegiak eratu ahal izango dira, eta egoitza dagokien autonomia-erkidegoko hiriburuan izango dute.

Auzitegi horiek eskumen eskusiboa izango dute lege honen 40. artikuluan aipatzen diren errekurtsoak ebazteko; zehazki, Estatuko lurralde-administrazioaren edo haren mendekoak diren eta eskumena dagokien autonomia-erkidego osoan edo zati batean daukaten organismo eta erakundeen egintzen aurka jarritakoak.

Auzitegi horietako presidentea eta kideak Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusirako aurreikusitako modu eta baldintza berberen arabera izendatuko dira, baina hamar urteko antzintasuna bakarrik eskatuko zaie.

2. Lurralde-azuzitegiak osatzen dituzten kideen kopurua erregelamenduz handituko da, haien ardurapean utzitako auzien bolumenak kide gehiago izendatzeko beharra sortzen duenean.

Auzitegiak berritzeko lehenengo saioan –kideak izendatu zirenetik hiru urtera egingo da– zati bat berrituko da.

Hala, zozketa bidez erabakiko da, adierazitako epea bete baino lehen, zein kidek utzi beharko duten kargua.

Edozein kasutan, kide bat kargutik

éste continuará en el ejercicio de sus funciones hasta que tome posesión de su cargo el que lo haya de sustituir.

Disposición adicional trigésima primera. *Autorización del Consejo de Ministros en concesiones de autopistas de competencia estatal.*

Será necesaria la autorización del Consejo de Ministros para la celebración, y, en su caso, modificación y resolución de los contratos de concesión de autopistas de competencia estatal.

Disposición transitoria primera. *Expedientes iniciados y contratos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley.*

1. Los expedientes de contratación iniciados antes de la entrada en vigor de esta Ley se registrarán por la normativa anterior.

A estos efectos se entenderá que los expedientes de contratación han sido iniciados si se hubiera publicado la correspondiente convocatoria del procedimiento de adjudicación del contrato.

En el caso de procedimientos negociados, para determinar el momento de iniciación se tomará en cuenta la fecha de aprobación de los pliegos.

2. Los contratos administrativos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se registrarán, en cuanto a sus efectos, cumplimiento y extinción, incluida su duración y régimen de prórrogas, por la normativa anterior.

Disposición transitoria segunda. *Fórmulas de revisión.*

Hasta que se aprueben las nuevas fórmulas de revisión por el Consejo de Ministros adaptadas a lo dispuesto en el artículo 91, seguirán aplicándose las

kentzen denean, bere eginkizunak betetzen jarraituko du, haren ordezkioak kargua hartu arte.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Estatuaren eskumenekoak diren autobideen kontzesioetan Ministroen Kontseiluak baimena ematea.

Estatuaren eskumenekoak diren autobideen kontzesio-kontratuak egiteko eta, hala badagokio, aldatzeko eta suntsiarazteko, Ministroen Kontseiluaren baimena beharko da.

Lehenengo xedapen iragankorra. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako espedienteak eta esleitutako kontratuak.

1. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko dira.

Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago.

Prozedura negoziatuen kasuan, kontratuaren hasiera-unea zehazteko, pleguak onartutako data hartuko da kontuan.

2. Lege hau indarrean sartu aurretik esleitutako administrazio-kontratuak, haien ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez –haien iraupena eta luzapena barne direla– aurreko araudiaren bidez arautuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Berrikusteko formulak.

Harik eta Ministroen Kontseiluak 91. artikuluan xedatutakoari egokitutako berrikuspen-formulak onartu arte, orain artekoak aplikatuko dira; alegia,

aprobadas por el Decreto 3650/1970, de 19 de diciembre; por el Real Decreto 2167/1981, de 20 de agosto, por el que se complementa el anterior, y por el Decreto 2341/1975, de 22 de agosto, para contratos de fabricación del Ministerio de Defensa, con exclusión del efecto de la variación de precios de la mano de obra.

Disposición transitoria tercera.
Determinación de cuantías por los departamentos ministeriales respecto de los Organismos autónomos adscritos a los mismos.

Hasta el momento en que los titulares de los departamentos ministeriales fijen la cuantía para la autorización establecida en el artículo 317. 5 será de aplicación la cantidad, calculada de conformidad con el artículo 88, de 900. 000 euros.

Disposición transitoria cuarta.
Determinación de los casos en que es exigible la clasificación de las empresas.

El apartado 1 del artículo 65, en cuanto determina los contratos para cuya celebración es exigible la clasificación previa, entrará en vigor conforme a lo que se establezca en las normas reglamentarias de desarrollo de esta Ley por las que se definan los grupos, subgrupos y categorías en que se clasificarán esos contratos, continuando vigente, hasta entonces, el párrafo primero del apartado 1 del artículo 25 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

No obstante lo anterior, no será exigible la clasificación en los contratos de obras de valor inferior a 350. 000 euros

abenduaren 19ko 3650/1970 Dekretua, aurrekoa osatzen duen abuztuaren 20ko 2167/1981 Errege Dekretua, eta Defentsa Ministerioaren fabrikazio-kontratueterako abuztuaren 22ko 2341/1975 Dekretua, eskulanaren prezioen aldakuntzaren eragina baztertuta.

Hirugarren xedapen iragankorra.
Ministerioetako departamentuek zenbatekoak finkatzea, atxikita dauzkaten organismo autonomoei dagokienez.

Harik eta ministerioetako departamentuek 317. 5 artikuluan ezarritako baimenaren gaineko zenbatekoa finkatu arte, aplikatu beharreko zenbatekoa, 88. artikulua arabera kalkulatu, 900. 000 euro izango da.

Laugarren xedapen iragankorra.
Enpresen sailkapena zein kasutan eska daitekeen zehaztea.

Lege honen 65. artikulua 1. paragrafoak zehazten du zein kontratutarako den eskatzekoa aurretiazko sailkapena, eta, hala, lege honek arautzen dituen kontratuak zein talde, azpitalde eta kategoriatan sailkatuko diren zehaztuko duten garapen-arauetan ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean artikulua hori. Ordura arte, indarrean jarraituko du Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen testu bateginaren 25. artikulua 1. paragrafo 1. lerroak.

Edonola ere, sailkapena ezin izango da eskatu 350. 000 euro baino gutxiagoko balioa duten obra-kontratuak.

Disposición transitoria quinta.
Régimen transitorio de los procedimientos de adjudicación de los contratos no sujetos a regulación armonizada celebrados por entidades que no tienen el carácter de Administración Pública.

1. En tanto no se aprueben las instrucciones internas a que se refiere el artículo 191. b), los poderes adjudicadores que no tengan el carácter de Administraciones Públicas se registrarán, para la adjudicación de contratos no sujetos a regulación armonizada, por las normas establecidas en el artículo 190.

2. Estas normas deberán igualmente aplicarse por las restantes entidades del sector público que no tengan el carácter de Administraciones Públicas para la adjudicación de contratos, en tanto no aprueben las instrucciones previstas en el artículo 192. 3.

Disposición transitoria sexta.
Plazos a los que se refiere el artículo 216 de la Ley.

El plazo de treinta días a que se refiere el apartado 4 del artículo 216 de esta Ley, se aplicará a partir del 1 de enero de 2013.

Desde la entrada en vigor de esta Ley y el 31 de diciembre de 2011, el plazo en el que las Administraciones tienen la obligación de abonar el precio de las obligaciones a las que se refiere el apartado 4 del artículo 216 será dentro de los cincuenta días siguientes a la fecha de la expedición de las certificaciones de obra o de los correspondientes documentos que acrediten la realización total o parcial del contrato.

Entre el 1 de enero de 2012 y el 31 de diciembre de 2012, el plazo en el que las Administraciones tienen la obligación de abonar el precio de las

Bosgarren xedapen iragankorra.
Herri-administrazio ez diren erakundeek egindako kontratu erregulazio harmonizatuko ez bestekoak esleitzeko prozeduren araubide iragankorra.

1. Harik eta 191. b) artikuluan aipatzen diren barne-jarraibideak onartzen ez diren arte, herri-administrazio ez diren botere esleitzzaileak, erregulazio harmonizatuko ez besteko kontratuak esleitzeko, 190. artikuluan ezarritako arauen pean egongo dira.

2. Arau horiek, orobat, herri-administrazio ez diren sektore publikoko gainerako erakundeek aplikatu beharko dituzte kontratuak esleitzeko, 192. 3 artikuluan aurreikusitako jarraibideak onartzen ez dituzten artean.

Seigarren xedapen iragankorra.
Legearen 216. artikuluan aipatutako epeak.

Lege honen 216. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den hogeita hamar eguneko epea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Lege hau indarrean sartzen denetik 2011ko abenduaren 31ra arte, administrazioek berrogeita hamar eguneko epea izango dute 216. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren obligazioen prezioa ordaintzeko eginkizuna betetzeko, obra-ziurtagiriak edo kontratua erabat edo partez gauzatu dela egiaztatzen duten dokumentuak ematen diren egunaren ondokotik hasita.

2012ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra arte, administrazioek berrogei eguneko epea izango dute 216. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren

obligaciones a las que se refiere el apartado 4 del artículo 216 será dentro de los cuarenta días siguientes a la fecha de la expedición de las certificaciones de obra o de los correspondientes documentos que acrediten la realización total o parcial del contrato.

**Disposición transitoria séptima.
Régimen supletorio para las
Comunidades Autónomas.**

En tanto una Comunidad Autónoma no regule ante quién debe incoarse la cuestión de nulidad prevista en los artículos 37 a 39 de esta Ley, o interponerse el recurso contra los actos indicados en el artículo 40. 1 y 2, y qué efectos derivarán de su interposición, serán de aplicación las siguientes normas:

- a) Serán recurribles los actos mencionados en el artículo 40. 2 cuando se refieran a alguno de los contratos que se enumeran en el apartado 1 del mismo artículo.
- b) La competencia para la resolución de los recursos continuará encomendada a los mismos órganos que la tuvieran atribuida con anterioridad.
- c) Los recursos se tramitarán de conformidad con lo establecido en los artículos 42 a 48 de esta Ley.
- d) Las resoluciones dictadas en estos procedimientos serán susceptibles de recurso contencioso-administrativo.

Cuando las resoluciones no sean totalmente estimatorias o cuando siéndolo hubiesen comparecido en el procedimiento otros interesados distintos del recurrente, no serán ejecutivas hasta que sean firmes o, si hubiesen sido recurridas, hasta tanto el órgano jurisdiccional competente no decida acerca de la suspensión de las

obligazioen prezioa ordaintzeko eginkizuna betetzeko, obra-ziurtagiriak edo kontratua erabat edo partez gauzatu dela egiaztatzen duten dokumentuak ematen diren egunaren ondokotik hasita.

**Zazpigarren xedapen iragankorra.
Autonomia-erkidegoetarako ordezeko
araubidea.**

Autonomia-erkidego batek lege honen 37. artikulutik 39. erako artikuluetan aurreikusitako deuseztasun-arazoa noren aurrean abiarazi behar den arautzen ez duen bitartean, edo noren aurrean jarri behar den 40. 1 eta 2 artikuluan adierazitako egintzen aurkako errekurtsua eta aurkezteak zer ondorio ekarriko dituen, ondorengo arauak aplikatuko dira:

- a) 40. 2 artikuluan aipatutako egintzen aurkako errekurtsua jarri ahal izango da, artikuluko bereko 1. paragrafoan aipatzen den kontratuetako batekin lotuta baldin badaude.
- b) Errekurtsuak ebazteko eskumena aurretik esleituta zeukaten organo beren esku gongo da.

- c) Errekurtsuak lege honen 42. artikulutik 48. era ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.
- d) Prozedura horietan emandako ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da. Ebazpenak ez badira guztiz baiesleak edota, baiesleak izan arren, prozeduran errekurtsogileaz gain beste interesdun batzuk agertu badira, ebazpenak ez dira betearaziko irmoak izan arte edota, horien aurka errekurtsua jarri bada, jurisdikzio-organo eskudunak horiek bertan behera uztearen inguruko erabakia hartu arte.

mismas.

**Disposición transitoria octava.
Procedimientos en curso.**

1. Los procedimientos de recurso iniciados al amparo del artículo 37 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, en la redacción vigente con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 34/2010, de 5 de agosto seguirán tramitándose hasta su resolución con arreglo al mismo.

2. En los expedientes de contratación iniciados antes de la entrada en vigor de la Ley 34/2010, de 5 de agosto podrán interponerse la cuestión de nulidad y el recurso previsto en el artículo 40 de esta Ley, contra actos susceptibles de ser recurridos o reclamados en esta vía, siempre que se hayan dictado con posterioridad a su entrada en vigor.

**Disposición final primera.
Actualización de las referencias a determinados órganos.**

Las referencias que se contienen en las normas vigentes a la Junta de Compras Interministerial y al Servicio Central de Suministros se entenderán realizadas, respectivamente, a la Mesa del sistema estatal de contratación centralizada regulada en el artículo 322 de esta Ley y a la Dirección General del Patrimonio del Estado.

Disposición final segunda. Títulos competenciales.

1. Los artículos 21 y 50 se dictan al amparo de la regla 6ª del artículo 149.1 de la Constitución, que atribuye al Estado la competencia sobre «legislación procesal, sin perjuicio de las necesarias especialidades que en este orden se deriven de las particularidades del derecho sustantivo de las Comunidades Autónomas».

**Zortzigarren xedapen iragankorra.
Hasitako prozedurak.**

1. Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 37. artikulua babespean hasitako errekurso-prozedurak –artikuluak abuztuaren 5eko 34/2010 Legea indarrean sartu aurretik zeukan idazketari jarraiki– artikulua horren arabera izapidetuko dira, ebazpena eman arte.

2. Abuztuaren 5eko 34/2010 Legea indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteen kasuan, deuseztasun-arazoa eta lege honen 40. artikuluan aurreikusitako errekursoa jarri ahal izango dira bide honetatik errekurritu edo erreklamatu daitezkeen egintzen aurka; betiere, Legea indarrean sartu ondoren onartu badira.

Azken xedapenetako lehena. Zenbait organori buruzko erreferentziak eguneratzea.

Indarrean dauden arauetan Ministerio Arteko Erosketa Juntari eta Horniduren Zerbitzu Nagusiari egiten zaizkien aipamenak, hurrenez hurren, lege honen 322. artikuluan arautzen den estatuko kontratazio-sistema zentralizatuaren kontratazio-mahaiari eta Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari buruz egindakotzat joko dira.

**Azken xedapenetako bigarrena.
Eskumen-tituluak.**

